



BASAURIKO KULTUR ETXEA ERAKUNDE AUTONOMOARI ATXIKITAKO KULTUR INSTALAZIOEN FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA

ZIOEN AZALPENA

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2 m) artikuluan ezartzen denez, kultura eta kultur ekipamenduak sustatzeko eskumen propioak izango ditu udalerrriak, Estatuko legediaren eta autonomia-erkidegoetako eskumenen arabera.

Xedapen horretan eta Euskadiko toki-erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.20 artikuluan ezarritakoaren arabera, Basauriko Udalaren Kultur Etxea Erakunde Autonomoan garatzen dira eskumen horiek. Hala ere, pertsona fisikoek, elkarteek eta bestelako erakundeek ere egin ditzakete ekitaldiak edo jarduerak hala nahi izanez gero, Kultur Etxeari atxikitako ekipamenduetan, erregelamendu honetan eta aplikagarri den gainerako araudian ezarritako baldintzetan.

Basauriko Udalaren Osoko Bilkurak 2010eko maiatzaren 27an onartu zuen orain arte indarrean egon den araudia, Basauriko Udal Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren kultur etxeen, gizarte-etxeen eta kultur instalazioen funtzionamendua arautzeko Erregelamendua, eta 2010eko ekainaren 14ko BAO n argitaratu zen.

Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea, hura garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua eta bestelako araudi aplikagarria indarrean jarri ondoren, egokitzat jotzen da aurreko erregelamendu hori eguneratzea, gaur egun aplikatu beharreko araudia jasoz eta udalerriko errealitatera egokituz, hori guztia kontuan hartuta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1 a) artikuluan eta 2/2016 Legearen 17.3, 17.5 eta 17.28 artikuluetan ezarritako toki-erakundeen erregelamendu- eta autoantolaketa-ahalak.

Era berean, interes orokorragatik eman da erregelamendu hau, Kultur Etxearen mendeko espazio guztien erabilera arautzeko ezinbesteko erregulazioa jasotzen du, eta bat dator gainerako ordenamendu juridikoarekin, arau-esparru argia, egonkorra eta koherentea sortzen laguntzeko. Beraz, Administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioak betetzen dira, bat etorritik premia, eraginkortasun, proportzionaltasun eta segurtasun juridikoaren printzipioekin.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Definizioa

Social Antzokia, kultur etxeak eta gizarte-etxeak Basauriko Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren mendeko udal-ekipamenduak dira, eta udalerriko hainbat eremutan daude. Gune horietan hainbat zerbitzu, programa eta jarduera garatzen dira, kulturalak,

prestakuntzakoak eta sozio-komunitarioak, bai eta herritarrei informazioa eta arreta ematekoak ere.

Herritarrei elkartzeko, informatzeko, trebatzeko, orientatzeko eta aisialdirako leku irekiak ahalbidetzen dizkiete, zerbitzu, programa eta jardueren erabilera multidiziplinarraren bidez, indibidualki zein kolektiboki, eta elkarteen, taldeen edo erabiltzaileen parte-hartze aktiboaren bidez; horrekin guztiarekin, aisiarako ohitura osasungarriak sortzen eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Erregelamendu honen xedea da Kultur Etxeko instalazioen eta gainerako zerbitzuen funtzionamendua eta erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erabilera-baldintzak arautzea.

Erregelamendu hau erabiltzaileen esku egongo da zentro bakoitzean eta Erakunde Autonomoaren webgunean.

3. artikulua.- Arau-garapena eta araudi osagarria

Kultur Etxea Erakunde Autonomoak ahalmena du araudi hau garatzeko edo argitzeko beharrezkoak diren xedapen edo ebazpen guztiak emateko. Hala ere, zerbitzu edo gune jakin batzuek, aldi berean, araudi osagarria izan dezakete zerbitzuaren alderdi espezifikoak arautzeko.

4. artikulua.- Helburuak

Honako hauek dira kultur instalazioen helburuak:

1. Basauriko biztanleentzat erreferentzia-puntu soziokultural eta parte hartzeko bide bezala balio izatea, kultura eskuragarriagoa izan dadin, elkartegintza sustatzeko eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko.
2. Antolaketa-unitate bakar batean integratzea informazio-, prestakuntza-, kultura-, gizarte- eta aisialdi-zerbitzuak, programak eta jarduerak, horiek bultzatzeko eta herritarren eskarietara eta beharretara egokitzeko.
3. Zerbitzuak sustatzea eta kudeatzea, herritarrei hurreratuz, eta, horrela, komunitatearen beharrak, nahiak eta aukerak hobeto ezagutzea eta gehiago baloratzea, horiei erantzuteko jarduketak azkarrago egin ahal izateko.
4. Programa eta zerbitzu kulturalak, sozio-komunitarioak, hezkuntzakoak, trebakuntzakoak eta abar bultzatzea, udalerriko gizartearen parte-hartzeari mesede egiteko eta hori hobetzeko.
5. Zerbitzuak, programak eta jarduerak eskaintzean kalitate maila ezin hobea lortzea, herritarren espektatibekin bat etorritik, eta erabiltzaileak gogobetetzea, dauden baliabide guztiak arrazionalizatuz eta koordinatuz.
6. Elkarteen, taldeen eta pertsonen partaidetza-prozesuak bultzatzea haien eskariak eta ekimenak jasotzeko, eta, horrela, jendea eta taldeak udalerriko gizarte-, kultura- eta kirol-prozesuetan integra daitezen sustatzea.



7. Udalerriko beste programa eta zerbitzu batzuetatik sortutako ekimenak barne hartzeko bitarteko gisa balio izatea.

5. artikulua.- Talde teknikoa

Kultur Etxea Erakunde Autonomoak talde tekniko bat izango du, erregelamendu honetan adierazitako helburuak lortzeko jarduera guztiak koordinatzeko ardura izango duena, eta, gainera, besteak beste egiteko hauek izango dituen:

- Burutzen diren jarduerak irizpide berritzaile, malgu, parte-hartzaile eta kalitatezkoei erantzuteko beharrezko ekintzak ezartzea.
- Programazioa gauzatzea eta zentroaren aurrekontua egitea.
- Inguruko zentroak sustatzea auzoetako erreferente sozial eta kultural moduan.
- Etengabe laguntzea eskaintzen diren zerbitzuen, programen eta jardueren kalitatea hobetzen, bai eta lantaldearen efikazia eta efizientzia hobetzen ere.
- Gizarte-eragileen, kultur elkarten, herritar guztien eta zentroen arteko informazio-eta komunikazio-tresna izatea.

6. artikulua.- Printzipioak

Erakunde Autonomoaren instalazio guztien antolaketan, printzipio hauek bete behar dira: espazioen eta zerbitzuen balio-aniztasuna, esku-hartzeen integrazioa eta koordinazioa, eta erabiltzaileen parte-hartzea. Zentroetan ematen diren zerbitzuak modu efizientean koordinatu eta gauzatu behar dira, programazio orokorraren barruan.

II. TITULUA ERABILTZAILEAK

7. artikulua.- Erabiltzailearen definizioa

Erregelamendu honen arabera, erabiltzaileak dira Erakunde Autonomoaren titulartasuneko ekipamenduren batera (Social Antzokia, kultur etxeak, gizarte-etxeak eta beste kultur instalazio batzuk) legez sartzten diren pertsona fisiko eta kolektibo guztiak, bertako instalazioak eta zerbitzuak legitimoki erabiltzeko asmoz. Esandakoa ez zaie aplikatuko instalazioetara beren lan-jarduera edo jarduera profesionala zorrotz betetzera sartzten diren pertsoneri.

8. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

Ekipamendu horien erabiltzaileek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Instalazioak, zerbitzuak, altzariak eta ekipamenduak ongi tratatzea eta modu egokian zaintzea. Lokaleko ordena eta garbitasuna errespetatzea.
2. Jarduera bakoitzerako jarritako lekuak erabiltzeko, zentro bakoitzean dagoen administrazio-zerbitzura eta/edo informazio- eta mantentze-lanetako laguntzailearengana jo behar da beti. Horiek arduratuko dira lekua zabaltzeaz eta ixteaz, bai eta jarduera egiteko behar den materiala emateaz ere.
3. Kultur etxearen eta, azken batean, bertako zerbitzuen arduradunen argibideak eta jarraibideak betetzea.
4. Ez jartzea oztoporik edo eragozpenik gainerako erabiltzaileek instalazioak legitimoki erabiltzeko.
5. Zentroaren ordutegia eta jarduera bakoitzerako ezarritako ordutegiak errespetatzea.
6. Gainerako erabiltzaileei zor zaien begirunea izatea, eta bizikidetzara onerako jarrera egokia izatea.
7. Instalazioak, materialak eta altzariak erregelamendu honetan aurreikusitako baldintzetan erabiltzea edo instalazio eta zerbitzu bakoitzari dagokion erabilera ematea, eta kalterik ez eragitea horietan eta gainerako erabiltzaileen osasunean eta eskubideetan. Instalazioak ezin dira inola ere aldatu (altzariak pintatu, mugitu edo lekuz aldatu, hormetan objektuak jarri...), non eta ez den Kultur Etxe Erakunde Autonomoaren idatzizko baimenarekin.
8. Instalazioak behar bezala erabiltzea, higiene-neurri egokiak betez.
9. Zentroko langileei jakinaraztea antzemandako anomalia guztiak (funtzionamendukoak, apurtutako gauzak, gabeziak eta erregelamendu honetan ezarritakoa ez betetzea).
10. Esku hartzen duten Udaleko sailek organo eskudunen edo zentroetako langileen bitartez ematen dituzten arau eta jarraibide guztiak betetzea, eta betiere haien lana erraztea eta haien argibideak behar bezala betetzea.
11. Instalazio, zerbitzu edo jardueraren berriazko txartelaren bidez identifikatzea, edo NANaren edo agiri baliokidearen bidez, instalazioak zaintzen dituzten langileek hala eskatzen dutenean, eta jarduera ordaindu izanaren frogagiria erakustea, erabiltzaileei eskatzen zaien guztietan.
12. Zentroetako langileak ez diren erabiltzaileek ez dute izango horietako geletako giltzarik.
13. Erregelamendu honetan ezarritako gainerako arauak betetzea, baita erabiliko den zerbitzuarenak ere.
14. Zerbitzu bakoitzerako zehaztutako tasak eta prezio publikoak ordaintzea, indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera, baldin eta aplikagarriak bazaizkie.



15. Erregelamendu honetan jasotako xedapen guztiak betetzea, bai eta zentro bakoitzaren berriarazko erabilera-arauak ere, hala badagokio.
16. Zentroko jarduerak edo programak gauzatzen ari direla errespetuz jokatzeari, eta jardueren edo ikuskizunen hasierako eta amaierako ordutegiak errespetatzea.
17. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren 10/2015 Legean jasotako beste edozein betebeharrak, erregelamendu honetan berriaraz jasota ez badago.

9. artikulua.- Erabiltzaileen eskubide orokorrak

Honako hauek dira Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren titulartasuneko kultur instalazioetako erabiltzaileen eskubideak:

1. Kultur etxeek antolatzen eta eskaintzen dituzten jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
2. Jarduera-programan adostutako baldintzetan edo instalazioak erabiltzeko baldintza berezietan ezarritako prezio publikoaren edo tasaren bidez ordaindutako zerbitzua jasotzea.
3. Justifikatutako arrazoiak direla-eta jarduera edo kontratatutako zerbitzua bertan behera utzi behar izanez gero, erabiltzaileak ordaindutako zenbatekoa itzuliko du Kultur Etxeak.
4. Kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultur instalazioetako langileekin hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzea, Basauriko Udalaren Euskararen erabilerari buruzko ordenantzarekin bat etorritik.
5. Erabilera orokorreko eremuak ezarritako ordutegietan erabiltzea, ezinbestean edo justifikatutako arrazoiaren batengatik erabiltzeko desgaituta daudenean izan ezik.
6. Zentroetan dituzten datu pertsonalak eskuratu, aldatu eta ezeztatzea, Datuak Babesteko Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.
7. Erreklamazioak, iradokizunak eta proposamenak aurkeztea, zerbitzuak hobetzeko eta haien iritzia eta kezak helarazteko. Horretarako, erreklamazio-orriak izango dituzte eskura instalazio bakoitzeko informazio- eta kontrol-zerbitzuetan (arreta eta mantentze-lanetako zerbitzu osagarria) eta herritarrentzako arreta-bulegoetan, bai eta Erakunde Autonomoaren webgunean ere. Erreklamazioei erantzuteko gehieneko epea 10 egun natural izango da, kasuan kasuko erreklamazioa erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita, ondare-erreklamazioak direnean izan ezik. Administrazio publikoen ondare-erantzukizunaren arloko prozeduren erregelamenduan ezarritakoa beteko dute azken horiek.

8. Epe horretan erantzunik jaso ez bada, erreklamazioa ezetsizat joko da, eta egoki irizitako errekursoak jarri ahal izango ditu interesdunak.
9. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren 10/2015 Legean jasotako beste edozein eskubide, erregelamendu honetan berariaz jasota ez badago.

10. artikulua.- Erantzukizun zibileko aseguru

Basauriko Udal Kultur Etxea Erakunde Autonomoak erantzukizun zibileko aseguru bat izango du bere titulartasuneko kultur instalazio guztietan administrazioaren ondare-erantzukizunaren kasuak estaltzeko.

11. artikulua.- Galdutako gauzak

Galdutako gauzak kasuan kasuko zentroko informazio- eta kontrol-zerbitzuan jasoko dira, eta honelaxe sailkatuko dira:

— Gauza baliotsuak. Aurkitzen direnetik hamabost egunen buruan jabeek erreklamatu ez badituzte, Udaltzaingoaren bulegoetara bidaliko dira, eta aurrerantzean haiek izango dira galdutako gauza horien erantzule jabe legitimoen aurrean.

— Jantziak eta bestelakoak. Hogeita hamar egunez gordeko dira zentroan bertan eta, epe hori amaitzerako jabeek erreklamatu ez badituzte, ongintza- edo laguntza-erakunderen bati emango zaizkio, edo materialak birziklatzeko tokietara eramango dira.

III. TITULUA INSTALAZIOETARA SARTZEKO ARAUDIA

12. artikulua.- Jendearentzako sarrera

Social Antzokia, kultur etxeak, gizarte-etxeak eta kultur instalazioak, funtsean, jendearentzako instalazio irekiak dira, prezio publiko edo tasa bat ordaintzea eskatzen duten jarduerak eta instalazioak izan ezik. Instalazioetara sartzean edo instalazioak erreserbatzean, indarrean diren udal-ordenantza fiskaletan ezarritakoak izango dira aurrez ordaintzea eskatzen duten erabileren eta jardueren prezio publikoak eta tasak. Erakunde Autonomoa ez diren beste pertsona, erakunde edo kolektibo batzuek sustatutako edo antolatutako jardueretara ere sartu ahal izango da, sustatzaileak ezartzen dituen baldintzetan eta eskakizunak betez.

13. artikulua.- Onartzeko baldintzak

Basauriko Kultur Etxea Erakunde Autonomoak erreserbatuta du sarrera ukatzea, eta sartzeko eta egoteko baldintza objektiboak ezar ditzake.

Baldintza horiek ezarri eta sarrera ukatzeko eskubidea gorabehera, ezin da inola ere diskriminaziorik egin jatorriagatik edo jaioterriagatik, arrazagatik, generoagatik, erlijioagatik, iriztiagatik, desgaitasunagatik, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik edo erabiltzaileen beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik.



Erabiltzaileek emanaldia hasi baino lehen sartu beharko dute aretora, baina aparteko kasuetan onartuko da aretora emanaldiaren lehen ordu laurdenean sartzea, baldin eta azken ilaretan edo anfiteatroetan leku libreak badaude, ikuskizunari ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

Social Antzokian, bertara sartzan diren guztiek eserita egon beharko dute, baita adingabeek ere, bakoitza bere jarlekuan, edukiera zenbatzeko eta segurtasun-kontuengatik.

Nolanahi ere, Erakunde Autonomoak eragotzi egin behar du zentroetara sartzea, honako kasu hauetan:

- Edukiera beteta badago.
- Ixteko ordua iritsi bada.
- Ezarritako gutxieneko adinik ez duten pertsonak badira.
- Beste ikusle edo erabiltzaile batzuei eragozpenak eragin diezazkieketen indarkeriazko portaerak dituzten pertsonak badira, edo ikuskizuna edo jarduera behar bezala garatzea eragozten badute.

14. artikulua.- Arreta eta mantentze-lanetako zerbitzu osagarriaren deskribapena

Erakunde Autonomoaren mendeko zentro bakoitzean, arreta- eta mantentze-zerbitzua egongo da. Zerbitzu horren ardura izango da zentro bakoitzaren mantentze-lanak kontrolatzea eta koordinatzea, eta zentroa modu egokian erabiltzen dela zaintzea. Halaber, arreta pertsonala edo telefono bidezkoa emango du egiten zaizkion kontsulta guztietan, eta zentroaren irudi ona zaindu beharko du.

15. artikulua.- Arreta eta mantentze-lanetako zerbitzu osagarriaren eginkizunak

Arreta eman eta mantentze-lanak egiteaz gain, honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultur instalazioetako teknikariek eta Udalekoekin batera lan egitea, helburuak betetzeko (prebentzioa, sustapena, parte-hartzea, programen eta zerbitzuen integrazioa, koordinazioa...) eta programak edo jarduerak gauzatzeko.
2. Aretoetarako sarrera kontrolatzea eta zaintzea.
3. Zentroko koordinazio-sistemetan parte hartzea, aldizkako bilerak eginez zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen duenean.
4. Beharrezko erregistroak eta txostenak betetzea, zerbitzuaren aldizkako memoriak egiteko.
5. Zentroko araudia betetzen dela zaintzea.

6. Eta, oro har, Erakunde Autonomoko arduradunek agindutako eginkizun guztiak, edo lanpostuen deskribapen-fitxetan ageri direnak.

16. artikulua.- Zentroetako ordutegiak

Kultur Etxearen mendeko zentro eta ekipamenduek beren ezaugarrien eta eskaintzen dituzten zerbitzuen arabera erabilera-ordutegia eta jendeari zabaltzeko ordutegia izango dute. Zentroan bertan eta Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren webgunean argitaratuko dira ordutegi horiek.

Udalak jarduerak egiteko zehazten duena izango da erabilera-ordutegia, direla jende guztiarentzako jarduerak, direla kolektibo jakin batzuentzat mugatutako jarduerak, direla ekitaldi bereziak.

Jendearentzako ordutegia erabilera-ordutegian barne hartuko da, eta Udalak oro har jendearentzako zerbitzu, programa eta jardueretarako zehazten duena izango da.

Erabilera-ordutegiaren arabera itxiko dira instalazioak, gehienez ere egindako azken jarduera amaitu eta ordu erdira.

17. artikulua.- Zerbitzuen eta jardueren informazioa

Erabiltzaileek informazio- eta kontrol-zerbitzu bat izango dute zentro bakoitzean, eta hortik zentralizatuko dira era guztietako informazioa, erreserbak eta izen-emateak. Iragarritako baldintzetan eta karteletan, programetan edo iragarkietan aurreikusitako denboran egin beharko dira ikuskizunak eta jarduerak, non eta ez den aldaketarik egin behar ustekabeko inguruabarrak direla-eta, baina jendeari behar besteko aurrerapenaz jakinarazita.

Era berean, webgunean egongo da informazio guztia.

18. artikulua.- Adingabeen sarrera

Segurtasun-arrazoiak direla eta, 9 urtetik beherako hurrek 18 urtetik gorako pertsona batekin sartu beharko dute kultur instalazio guztietara, haien ardurapean, non eta ez doazen adin horretarako ikastaro edo tailerretara, ikastetxe, klub edo talde antolatuetatik. Kasu horretan, ezinbestekoa da jarduera horien ardura duten langileak egotea.

Nolanahi ere, establezimenduen arduradunek eta ikuskizunen antolatzaileek nortasun-agiri nazionala edo agiri baliokidea erakusteko eska dezakete, erabiltzaileen eta bertaratuen adina egiaztatzeko bitarteko gisa, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 19.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. artikulua.- Animalien sarrera

Oro har, debekatuta dago animaliak Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren ekipamenduetara sartzea, non eta ez diren laguntzeko, gidatzeko eta segurtasuneko zereginak dituzten animaliak. Beraz, animaliak babesteko udal ordenantzaren 13. artikulua xedatzen duen moduan, desgaitasun baten ondorioz laguntza-animalia batekin doan pertsona orok eskubidea izango du animalia hori edozein gunetan sartu, ibili eta berarekin egoteko.



20. artikulua.- Ibilgailu gurpildunekin eta antzekoekin sartzea

Instalazioetara ezin da sartu bizikletekin, haur-jostailu gurpildunekin, patinekin, gurpil-oholekin eta antzeko beste batzuekin.

Haurtxoentzako orgak horretarako prestatutako guneetan jarri beharko dira.

21. artikulua.- Telefono mugikorrekin, irrati- eta musika-aparatuekin eta antzekoekin sartzea

Debekatuta dago irrati- eta musika-aparatuak eta antzekoak erabiltzea musika jartzea baimenduta ez dagoen tokietan (korridoreak, halla, patioak, etab.). Mugikorrek itzalita egon beharko dute Social Antzokiko ekitaldietan, liburutegietan, ikasketa-geletan, zentroetan jarduerak egiten diren bitartean, eta, azken batean, zentroaren edo jardueraren funtzionamendu egokia oztopatzen duten kasu guztietan.

22. artikulua.- Hedabideen sarrera

Hedabideak zentroan sar daitezke aldeztatik aurretik baimenik izan gabe ere, zentroetan programatuta dauden ikuskizun publikoei eta jarduerari buruzko informazioa emateko, betiere honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

- Zentroaren ohiko funtzionamendua ez oztopatzea.
- Zentroa irekitzeko edo ixteko ordutegia ez aldatzea.
- Grabazio orokorrak direnean, pertsonen intimitateari ez eragitea. Hala ez denean, filmatu edo elkarrizketatuko diren pertsonen berariazko baimena behar izango da.
- Pertsonen intimitatea, segurtasuna edo eraikinaren segurtasuna larriki kaltetu dezakeen ezer gertatu ez izatea (ezbeharrak).
- Gainerako kasuetan, hedabideek baimena lortu beharko dute aurrez.

IV. TITULUA INSTALAZIOEN ERABILERA-ARAUDIA

23. artikulua.- Instalazioen ohiko eta ezohiko erabilerak

Social Antzokiak, kultur etxeek, gizarte-etxeek eta kultur instalazioek ohiko erabilera izan dezakete instalazio bakoitzaren erabilera nagusiaren arabera, edo ezohiko erabilera izan dezakete, erabilera nagusi horren arabera izan gabe.

Instalazio bati ezohiko erabilera ematen zaionean, egokiak diren erregelamendu honetako arauetaz gain, egin nahi den jarduera zehatzari dagokion araudi zehatza ere aplikatu beharko da.

24. artikulua.- Gizalegeko jokabidea

Debekatuta dago jolasteko ez diren guneetan jolastea, barandetan behera irristatzea, oihu egitea, korridoreetan barrena korrika ibiltzea, kantatzea eta zentroaren funtzionamendu egokia kaltetu dezakeen beste edozein gauza egitea.

25. artikulua.- Tabakoa, janaria eta edariak kontsumitzeari eta haien ontziei buruzko arauak

Debekatuta dago kultur etxeetan, gizarte-etxeetan eta kultur instalazioetan edari alkoholdunak kontsumitzea, Erakunde Autonomoaren presidentek berariaz baimentzen duen jardueretan izan ezik.

Adikzioen eta droga-mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko 1/2016 Legean ezarritakoaren arabera, debekatuta dago erretzea eta legez kanpoko edozein substantzia kontsumitzea Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren titulartasuneko gune guztietan.

Debekatuta dago barruko espazioetan jatea, Erakunde Autonomoaren presidentek berariaz baimentzen dituen jardueretan edo horretarako prestatutako espazioetan eta kafetegi-eremuetan izan ezik.

Saltzeko makinak egonez gero, makina horiek dauden eremuetan bakarrik kontsumitu ahal izango dira eskura dauden produktuak, plastikozko botiletako ura izan ezik.

Gutziz debekatuta dago instalazioetan beirazko ontziak edo tresnak sartzeari, non eta ez diren egingo den jarduerarekin zuzenean loturiko materialak.

26. artikulua.- Zentroko materialen erabilera

Zentroan egiten diren jarduera guztiek material egokiak izan beharko dituzte, eta material horien berariazko erabilera-arauen arabera erabili beharko dira. Material horiek erabiltzeagatik edo jarduera bera egiteagatik ezin izango da aldatu zentroko ondasun higigarrien edo higiezinaren egoera. Toki bakoitzean erabilera orokorreko materiala egonez gero, erabiltzaileen esku jarriko da material hori; erabiltzaileen ardura izango da materiala ongi erabiltzea, eta materiala lekuz aldatu, jaso eta kasuan kasuko biltegiara itzultzea.

Beharrezkotzat jotzen bada zentroan eskuragarri ez dagoen material gehigarriren bat erabiltzea, zentroko arduradunaren baimena beharko da material hori erabiltzeko, eta erabiltzaileen beraren ardura izango dira erabilera horrek ekar ditzakeen ondorioak.

27. artikulua.- Jantzera egokia

Kasuan kasuko jarduera egiteko eskatzen den eran jantzi beharko dute zerbitzu eta instalazioen erabiltzaileek, jarduera burutzeko.

28. artikulua.- Materiala biltegitratzea

Egin beharreko jardueragatik erabiltzaileen materiala biltegitratu behar bada zentroan, horretarako berariaz jarritako armairu, tiradera edo lekuetan utzi beharko da material hori, zentroak baimena eman ondoren. Ez da Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren



ardura izango, inola ere, bere instalazioetan gordetako material pribatua zaintzea eta kontserbatzea.

29. artikulua.- Argazki-kamerak, bideo-kamerak edo irudiak edo soinuak hartzeko beste edozein bitarteko erabiltzea

Erabiltzaileen intimitatea zaintzeko eta errespetatzeko, erabat debekatuta dago argazki- edo bideo-kamerak erabiltzea, baita telefono mugikorrek, PDAk edo funtzio hori duten beste gailu batzuk ere, pertsonen intimitatea urra daitekeen gela guztietan.

Gutziz debekatuta dago komunetan, aldageletan eta antzeko geletan irudiak hartzea. Toki komunetan irudi pribatuak hartu daitezke, irudietan jaso nahi diren pertsonen aurkakoa adierazi ezean edo erregelamendu honetako atalen batean berariaz kontrakoa adierazi ezean.

Irudiak eta soinuak zentroko toki komunetan hartzen direnean eta informatzeko xedea dutenean, erregelamendu honetako 20. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Kultur Etxea Erakunde Autonomoko edozein ekipamendutan jarritako bideo-zaintzako kamerak Udaltzaingoak gainbegiratuko ditu, eta indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera jarriko dira.

30. artikulua.- Udal Kultur Etxearena ez den publizitatea jartzea edo agertzea

Erakunde Autonomoarena ez den publizitatea jarriko da libre dagoen espazioaren arabera, eta bestelako erakunde publikoetako ez den publizitatea jartzeko, zentroko arduradunaren berariazko baimena behar izango da jarraian aipatzen diren eta debekatuta dauden egoerak kontrolatzeko. Halaber, partikularren iragarkiak ez dira izango 10 x 15 cm baino handiagoak, eta gehienez ere bi astez egon ahal izango dira jarrita. Nolanahi ere, irabazi-asmorik gabeko elkarteek udalerrian bertan antolatutako jardueri edo programei buruzko publizitatea bakarrik jar daiteke.

Debekatuta dago publizitatea jartzea honako kasu hauetan:

— Publizitateak edari alkoholodunak eta tabakoa kontsumitzea bultzatzen dezakeenean, mezu xenofoboak dituenen, legez kanpoko substantziak kontsumitzea bultzatzen duenean edo, oro har, legedia urratzea bultzatzen duenean.

— Ageri diren mezuak edo irudiak pertsonen duintasunaren aurkakoak direnean eta Konstituzioan onartutako balioak eta eskubideak urratzen dituztenean, bereziki haurrak babesteari eta hizkuntzaren edo irudien erabilera sexistari dagokionez.

— Irabazteko asmoa duen publizitate komertziala denean.

— Publizitate-euskarrian erakunde iragarlearen datuak argi eta garbi ageri ez direnean, edo iragarritako mezuek edo edukiek ez dutenean argi eta garbi islatzen publizitatearen helburua.

— Publizitate horretan Euskararen erabilerari buruzko ordenantzan eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testuan xedatutakoa betetzen ez duena.

Nolanahi ere, kartel, iragarki eta publizitate-programen bidez publizitatea inprimatu, banatu edo zabaltzeko ardura duten enpresek Erakunde Autonomoari lagundu beharko diote iragarritako ikuskizunaren edo jardueraren antolatzailea identifikatzen.

31. artikulua.- Produktuen salmenta

Debekatuta daude zuzenean edo zeharka edozein produktu saltzea helburu duten jarduera guztiak, saltzeko arrazoia soziala edo ongintzakoa denean eta Erakunde Autonomoaren presidentek beren beregi baimentzen duenean izan ezik. Edozelan ere, ezingo da baimendu edariak saltzea.

Debeku horretatik salbuetsita daude zentroetan jarritako saltzeko makinak, eta Social Antzokian edo Ibaiganeko kultur etxeko ekitaldi-aretoan egiten diren ekitaldiekin edo emanaldiekin zerikusia duten produktuen edo sustapen-artikuluen salmenta, betiere Udalaren baimena badute eta edari alkoholodunak ez badira. Arte-erakusketak direnean, ezingo da transakzio ekonomikorik egin zentroen barruan.

32. artikulua.- Larrialdietako irteeren erabilera

Larrialdiko ebakuazioetan bakarrik erabil daitezke larrialdietako irteerak, eta ebakuazio-bide guztiak oztoporik gabe mantendu beharko dira.

33. artikulua.- Eragindako kalteak

Erabiltzaileen batek nahita edo utzikieriaz instalazioetan kalteren bat eragiten badu, Kultur Etxea Erakunde Autonomoak bere esku dituen lege-baliabide guztiak erabiliko ditu kaltea ordain dakion.

Kultur Etxetik edo bere programaziotik kanpoko edozein pertsonak edo erakundek antolatutako ekitaldi edo jardueraren batean gertatu bada kaltea, antolatzaileei erreklamatuko zaie, antolatutako ekitaldiaren edo jardueraren erantzule diren aldetik.

Kalteen erreklamazio horien izapideak ez du eraginik izango erregelamendu honetan nahiz aplikagarri diren gainerakoetan jasotzen diren arauak ez betetzeak berekin ekar ditzakeen administrazio-zehapenetan.

V. TITULUA PROGRAMAZIOA, JARDUERAK, IKASTAROAK, TAILERRAK ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

34. artikulua.- Jardueren programazioa

Social Antzokiaren, kultur etxeen eta gizarte-etxeen programazioa da horietako jarduerak antolatzeko tresna, eta zentro bakoitzeko arduradunek egingo dute, Kultur



Etxeko Zuzendaritzaren gidalerroei jarraituz. Programazioaren arduradunek jarraitu beharreko irizpide eta helburu orokorrak zehaztuko ditu Zuzendaritzak, Erakunde Autonomoak ezarritako jarraibideen arabera. Urteko memoria egingo da, aldi bakoitzean beharrezkotzat jotzen diren ebaluazioen eta fiskalizazioen kaltetan izan gabe.

35. artikulua.- Jardueren ezaugarriak. Jarduerak, ikastaroak, tailerrak eta bestelako prestakuntza-jarduerak

Kultur Etxearen mendeko zentroek mota askotako jardueren programa bana eskainiko dute, dagoen eskariaren edo zentro bakoitzaren arabera interesgarriak diren programen arabera. Jardueren programak, edonola ere, ezin izango du irabazi asmorik izan erabiltzaileen aldetik.

Jarduera, ikastaro eta tailer bakoitzerako, jarduera bakoitzaren ezaugarrien eta ordenantza fiskalen arabera, honako hauek ezarriko dira: kuotak, zer pertsona eta talderentzat diren, zer alditan egingo diren, egunak, ordutegiak, sartzeko baldintzak, non egingo diren, izena emateko epeak eta izena emateko modua.

Informazio hori garaiz jarriko da eskura zentroetan, eta argitaratuko da Udalaren web-orrian eta egokituz jotzen diren bitartekoak baliatuz, ahalik eta hedapenik handiena izan dezan.

36. artikulua.- Izen-ematea formalizatzea

Izen-emateak adierazitako leku, ordu eta egunetan egingo dira, eta ez da onartuko epez kanpoko eskaerarik. Ez da beharrezkoa interesdunak egitea izen-ematea edo, hala badagokio, matrikula. Edonork egin dezake, baldin eta eskatutako dokumentazioa aurkezten badu.

Ikastaroetan izena emateko epea amaitzean, eskainitako plazak baino eskari gehiago jaso badira, zozketa publiko bidez banatuko dira plaza horiek, eta onartu ez diren pertsonekin itxaron-zerrenda egingo da, egon daitezkeen hutsuneak betetzeko.

Izen-ematea ez da behin betikotzat joko harik eta ordainketa egin (banku-helbideratzearen bidez) eta kasuan-kasuan deialdian eskatzen diren egiaztagiria aurkeztu arte. Agiri horiek aurkezteko gehienezko epea izango da izena emateko orrietan adierazitakoa. Udalaren ordenantza fiskaletan indarrean dauden arauak aintzat hartuko dira.

Prezio murriztua edo berezia duten erabiltzaileek, prezio hori baliatu ahal izateko, dagokion dokumentazioa edo txartel eguneratua aurkeztu beharko dute izena emateko orduan.

Jarduerarako izena-ematea pertsonala da eta ezin izango zaio beste pertsona bati aldatu. Aldaketa hori eginez gero, pertsona horri baja emango zaio jardueran, eta ezingo dute izena eman aurreko ikasturteko zenbait jarduera ordaindu gabe dituzten pertsonak.

Kultur Etxeak ez die plazarik bermatuko jardueretan eskaria egiten duten guztiei. Horregatik, dagoen eskaria dela-eta hala komeni den jardueretan eta zerbitzuetan, sistemak ezarri ahal izango dira ahal den neurrian aukera-berdintasuna bermatzeko lekua lortzeko aukeretan. Ikastaro edo tailer guztietan gutxieneko pertsona kopuru bat eskatuko da egin ahal izateko, ikastaro edo tailer horiek hasi baino hiru egun lehenago. Halaber, klaseen kalitatea bermatzeko, talde bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua zehaztuko da urtero.

Kasuan kasuko ordenantza fiskaletan ezarriko dira ordaindu beharreko zenbatekoak.

VI. TITULUA LUDOTEKAK

37. artikulua.- Ludoteka-zerbitzua

Basauriko Kultur Etxeak, haurren premiez jabetuta, Basauriko haurrentzako zerbitzuen aldeko apustua egin du, aisialdi-jarduerak eta parte hartzeko jolasak eginez. Horiek egiteko, Udalaren ekintza bideratzen duten jarraibideak izango dira kontuan: berdintasuna, parte-hartzea, lankidetzak, eta erabat euskalduna den testuinguruan integratzea.

38. artikulua.- Ludoteka-zerbitzuaren definizioa

Ludoteka jolasteko lekua da, eta bere helburu nagusia da haurren nortasuna garatzea, jarduera ludikoen eta jarduketaren integralen bidez. Euskaraz egingo dira horiek denak. Helburua da haurrak aisialdian hezteko eta sozializazioa eta garapen integrala bultzatzea.

39. artikulua.- Ludoteka-zerbitzuaren erabilera

Basauriko ludoteka-zerbitzuak auzoetako kultur etxeetan eta gizarte-etxeetan eskaintzen dira, bai eta egokitzen jotzen diren beste kultur instalazio batzuetan ere.

40. artikulua.- Sarrera, izen-ematea eta kuotak

Ludoteka zerbitzua 4 urtetik 10 urtera bitartekoentzat da.

Ludotekan parte hartzeko, ezarritako egunetan eta horretarako zehaztutako lekuetan formalizatu behar da izen-ematea, eta ez da onartuko epe kanpoko eskaerarik.

Epea amaitzean, eskainitako plazak baino eskaera gehiago egonez gero, zozketa publiko bidez banatuko dira plaza horiek, eta lehentasuna izango dute Basaurin erroldatuta dauden pertsonak. Onartu ez diren eskabideekin itxaron-zerrenda egingo da, egon daitezkeen hutsuneak betetzeko.

Adierazten den egunetik aurrera, onartutakoen zerrenda jarriko da zentroetan.

Eskainitako zerbitzuak bertan behera gera daitezke, eskaera nahikorik ez badago. Behar besteko aurrerapenez jakinarazi behar da hori, eta programa eta antolaketa-sistemari eragiten dioten gaiak aldatzeko eskubidea izango du Kultur Etxeak.



Dagokion ordenantza fiskaletan ezarriko dira ordaindu beharreko kuotak. Banku-helbideratzearen bidez egin behar da ordainketa, eta behin ikastaroa hasita, ez da matrikulako dirurik itzuliko.

VII. TITULUA ENTSEGUETARAKO GELAK

41. artikulua.- Zerbitzuaren deskribapena

Zerbitzu honek Basauriko zein kanpoko bakarlariekin eta musika-taldeen esku jartzen ditu zenbait lokal, bereziki egokituta daudenak entseguetarako. Zerbitzuaren barruan ekipamendu hauek daude:

- 1) Airea berritzeko sistema duten 3 gela intsonorizatu.
- 2) Bateria eta ahots-ekipoa, taldeek duten materialaren osagarri gisa.
- 3) Taldeen aplikadoreak gordetzeko biltegia. Oro har, ezin izango da musika-tresnarik gorde biltegian, non eta ez den hala egitea komeni, justifikatutako arrazoiengatik.

42. artikulua.- Hartzaileak eta erabilera-araubidea

- 1) Edozein musika-taldek erabil dezake zerbitzua, axola izan gabe nongoa den eta zer musika-estilo egiten duen, baldin eta bertan izena ematen badu eta eskatutako datuak ematen baditu, taldearen ezaugarriei eta parte-hartzaileei dagokienez (I. eranskina).
- 2) Erabilera-araubideari dagokionez, aldeztu aurretik erreserbatu behar da orduka, eta prezioak urtero onartuko dira kasuan kasuko ordenantza fiskaletan.
- 3) Egun eta ordu-tarte bererako bi eskaera badaude, zerbitzua erabiltzeko lehentasuna izango du gutxienez kideen % 50 udalerrian errolatuta dituen taldeak.

43. artikulua.- Lokala erreserbatzeko prozedura

Lokalak erreserbatzeko prozedura honako hau da:

- 1) Taldeak aldeztu aurretik alta eman behar du zerbitzuaren erroldan. Bertan, taldearen datu orokorrak eta taldekideen datu zehatzak jasoko dira.
- 2) Bonuak ordaintzeko, dirua bankuan sartu eta/edo Bizum erabil daiteke.

Entsegu-gelara sartzeko, nahitaezkoa da bankuan dirua sartu izanaren ziurtagiria aurkeztea. Ziurtagiri horretan honakoak adierazko dira: taldearen izena eta "gelak" hitza.

Behin ziurtagiria aurkeztuta, zentroko iragarki-taulan dagoen aretoen egutegian libre geratzen diren orduak aukeratu ditzake taldeak.

3) Aurreko puntuak bete direnean, taldeetako edozein musikarik gela erreserbatu dezake, horretarako sortutako app-aren bidez, zentrora bertaratuz edo entseiugelak@basauri.eus helbide elektronikoan. Erreserba berehala berretsiko da.

Berretsitako erreserba bat baliogabetu nahi izanez gero, horren berri eman behar zaio zerbitzuaren arduradunari, posta elektronikoz edo telefonoz.

4) Gela-eskaerei erantzuna emateko asmoz, entseatzeko ordu kopurua mugatu egingo da. Horrela, astelehenetik ostegunera gehienez 4 orduz entseatu ahalko du talde bakoitzak eta ostiraletik igandera gehienez 4 orduz entseatu ahalko da, guztira.

Hala ere, eskaeren arabera, Kultur Etxeak entseguen gehieneko ordu kopurua aldatu dezake, gelak ongi erabiltzeko egokia baderitzo. Talde batek, modu puntualean, baimendutakoa baino entsegu-ordu gehiago behar baditu laster kontzertua duelako, ordu gehiago eska ditzake. Idatziz eskatu behar du, eta justifikatu benetakoa dela behar (kontzertu) hori, dokumentu edo kartel baten bidez.

5) Lekua erreserbatzeko ordutegia honako hau da:

- Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 21:00etara

- Larunbat eta igande arratsaldeetan: 17:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 20:30era

Dena dela, gelak hutsik eta jasota egon beharko du alokatutako denbora bukatu baino 5 minutu lehenago.

6) Erreserbatzeko denbora 2 edo 4 ordu izan daiteke. Larunbat eta igande arratsaldetako bigarren txandetan, erreserba ordu eta erdikoa izango da, eta prezioa proportzioan murriztuko da. Ezingo da egin denbora gutxiagoko erreserbarik, entsegu-gela erreserbatzeko tarifak murriztuta. Erreserba idatziz edo posta elektronikoz berretsiko da.

Erreserbak berrestea eta ezeztatzea

7) Erreserba egin denean, Udal Kultur Etxeak erreserba gordeko du, hori eragozten duen inguruabar argudiatu ez bada. Halakorik gertatzen bada, ahalik eta arinen jakinaraziko zaio erreserba egin duen pertsonari.

8) Taldeak erreserba ezeztu nahi badu, ez da murriztuko erabilitako ordu kopurua, betiere 48 orduetik gorako aurrerapenaz ezeztu bada erreserba. Bestela, hasieran erreserbatutako ordu kopurua kenduko da, gela erabili izan balitz bezala. Kontsultatu 8, 2) puntua: Zehapenak.

44. artikulua.- Erreserbaren titularraren ardurak

Erreserba-eskaera egiten duen pertsona izango da erabilera-araudi honetan xedatutako guztiaren arduraduna. Horrez gain, orokorrean, zentroko lokalak eta materialak zaintzeko, ongi erabiltzeko eta errespetatzeko ardura eta langileekiko eta erabiltzaileekiko errespetua bermatzeko ardura izango du.



45. artikulua.- Zerbitzuko ekipamendua erabiltzeko modua

Musikari guztiak zerbitzuko ekipoak eta instalazioak ahalik eta ondoen zaintzeaz arduratuko dira.

Gutziz debekatuta daude honakoak: zerbitzuko ekipamendua nahita txarto erabiltzea, aldatzea, lapurtzea, desmuntatzea, eta, orokorrean, berau hondatzea edo desagerraraztea eragin dezakeen nahitako edozein ekintza.

46. artikulua.- Ekipoak gordetzeko biltegia

Zerbitzu honen bidez, musikariek aplikadoreak (soilik) gorde ahalko dituzte doan. Horretarako, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1) Ekipo guztiak identifikatuta egongo dira eta datu hauek jasoko dituzte:
 - Ekipoaren jabea den musikariaren izena.
 - Jabea den taldearen izena.
 - Gordetako ekipoaren datuak.
- 2) Musikariaren batek bere ekipoa atera nahi badu, NANA edo agiri baliokidea erakutsi beharko du, gorde duena bera izan dela bermatzeko.
- 3) Azken entsegutik 3 hilabete igaro badira, biltegian utzitako materiala eraman egingo da bertatik. Aretoak erabiltzen dituzten bandentzako zerbitzua da biltegia, eta ez da behin betiko biltegia.

47. artikulua.- Biltegien gaineko ardura

Basauriko Kultur Etxeak ez du izango inolako erantzukizunik musikariek zerbitzu honetako biltegien gordetzen dituzten materialak eta ekipoak lapurtu, ebatsi edo ustekabeen hondatuz gero. Ekipoak biltegian gorde ahal izateko, hori islatzen duen agiria sinatu beharko dute aldeztatik musikariek.

48. artikulua.- Araudia onartzea

Entsegu-gelen zerbitzua erabiltzeko, erabiltzaileek araudi hau onartu beharko dute, bai eta Basauriko kultur etxeak eta gizarte-etxeak erabiltzeko araudi orokorra ere.

VIII. TITULUA ERAKUSKETA-ARETOAK

49. artikulua. — Erakusketa-aretoak

Kultur Etxeak aldi baterako erakusketen programazioa antolatzen du kultur etxeetan, gizarte-etxeetan eta kultur instalazioetan erakusketetarako dagoen tokiaren arabera. Hurrenkera honetan, lehentasuna dute programazio propioak; beste erakunde, fundazio publiko, entitate eta elkarten erakusketa ibiltariak; eta partikularrek eskatutako erakusketek.

50. artikulua.—Erakusketa motak

Erakusketa Plan bat prestatuko da, modalitate plastiko guztiak (pintura, eskultura, argazkigintza, zeramika...) kontuan izanik, eta tokiko artisten nahiz kanpoko artisten erakusketak, beste erakunde eta entitate pribatu batzuek eskainitako erakusketak, erakundeek babestutako erakusketak edo babes komertzialeko erakusketak egin ahal izango dira. Kultur etxeetako eta gizarte-etxeetako ikastaro eta tailerretako ikasleen erakusketak ere egingo dira.

51. artikulua.- Erakusketen garapena

Erakusketek 30 egun iraungo dute gehienez, eta Erakunde Autonomoaren presidentek erabakitzen duen egunean inauguratuko dira, artistarekin eta zentroko arduradunarekin adostuta. Erakusketa zabalik eta itxita izateko ordutegiak zentroaren jendaurreko ordutegira egokitu beharko dira. Hala ere, eta Erakunde Autonomoaren presidentearen baimenarekin, inaugurazio-egunean berandu itxi ahal izango da.

Artelaren kopurua eta aretoko banaketa irizpide estetiko eta artistikoen arabera egingo dira. Irizpide horiek artistak berak eta Erakunde Autonomoaren presidentek edo hark eskuordetzen duen pertsonak zehaztuko dituzte.

Erakusketa zabalik dagoen orduetan, erakusketa-aretoa sartzeko atea irekita egongo da baldin eta zentroko informazio- eta mantentze-lanetako laguntzailea, kolaboratzaile bat edo Erakunde Autonomoko beste langileren bat barruan badago.

Kultur Etxea erakunde autonomoak erantzukizun zibileko aseguru bat du, baina ez du erakusketa bakoitzaren aseguraturako balioa estaltzen. Beraz, lanak garraioan edo instalazioetan hondatzen badira, edo Erakunde Autonomoaren materiala erabili eta hondatzen bada, artista izango da horien erantzule.

Garraioa antolakuntzaren esku egongo da, hau da, artistaren estudiotik aretora eta, erakusketa amaitzean, atzera estudiora berriro.

52. artikulua. Erakusketak muntatzea eta desmuntatzea.-

Muntatze-lanak eta desmuntatze-lanak lanak zentroaren funtzionamendu-ordutegiaren barruan egingo dira, eta artistek ordutegi horretara egokitu beharko dute. Erakusketaren bisita-ordutegia ere zentroa bera zabalik dagoena izango da. Hala ere, salbuespen gisa, muntatzeko beste ordutegi bat baimendu ahal izango da, betiere erakusketa koordinatzen duen kultur etxeko langileek gainbegiratuta.

Artistak berak muntatu beharko du bere erakusketa, baina zentroko informazioko eta mantentze-lanetako laguntzaileen eta, hala badagokio, zentroko arduradunaren laguntza izango du: 3-5 egun izango ditu erakusketa osatzeko, eta 2 egun desmuntatzeko.

Erakusketa antolatzen duen kultur etxeko langileei eta zentroko arduradunari jakinarazi beharko die, muntatu aurretik, erakusketa nolakoa izango den, hau da, deskribapen zehatza, muntatzeko eta desmuntatzeko datak, ezaugarri teknikoak, obren kokapenari buruzko xehetasunak, erabili beharreko materiala eta lan horietarako interesgarria izan daitekeen beste edozein datu. Erakusketa antolatu duen Erakunde Autonomoko langileek eta zentroko arduradunak zentroan informazioa emateaz eta mantentze-lanak egiteaz



arduratzen diren laguntzaileei helaraziko diete informazio hori, behar besteko aurrerapenez antolatu ahal izateko.

Aretoan, hormetan eta sabaietan iltzeak sartu ahal izango dira, betiere gehiegi sartu behar ez badira, eta erakusketa koordinatzeaz arduratzen den pertsonak eta zentroko arduradunak gainbegiratuta. Arkitekturaren babesa kontuan hartuta, ezin izango dira erabili lurzoruak eta hormak hondatzen dituzten material kimikoak eta urratzaileak, eta ezin izango dira aretoaren erdiko zutabeak zulatu.

Erakusketa amaitu ondoren, gehienez ere bi eguneko epean kendu beharko da, beste erakusketa batzuen egutegian eta aretoaren erabileran eragozpenik ez sortzeko.

53. artikulua.- Erabilera-baldintzak.-

..
Erakusketa-aretoa erabiltzeko, ezinbestekoa da erregelamendu honetako artikulua guzti-guztiak erabat onartzea. Horietako edozein ez betetzeak erakusketa bertan behera uztea edo ezeztatzea ekar dezake, eta, hala badagokio, baita ondoriozta litezkeen legezko ekintzak ere.

IX. TITULUA LIBURUTEGIAK ETA IKASTEKO GELAK

54. artikulua. Basauriko Liburutegi Publikoen Zerbitzuaren xedea, definizioa eta helburua

Basauriko Liburutegi Publikoen Sarea honako hauek osatzen dute: Ibaiganeko Helduen Liburutegiak, Ibaiganeko Haur Liburutegiak, Basozelaiko Liburutegiak, Pozokoetxeko Liburutegiak eta San Migeleko Liburutegiak. Horiek guztiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen parte dira.

Hala ere, Kultur Etxea Erakunde Autonomoak bere kabuz antola ditzake liburutegien zerbitzua eta kokapena, unean uneko beharrak eta eskaria baloratu ondoren.

Sarearen xedea herritar guztiei informazioa, ezagutza eta kultura eskura jartzea da, irakurketaren sustapenean eragile aktibo izanik baliabide materialen, bildumaren eta jardueren programazioaren bitartez.

55. artikulua.- Sartzeko baldintzak

Liburutegia udal-zerbitzu publikoa da, herritar guztiei irekita dagoena zehaztutako egun eta orduetan.

Arau orokor gisa, haurrentzako guneak 14 urtetik beherakoentzat dira, eta 4 urtetik beherakoentzat, zehazki, Basozelaiko Bebetekaren kasuan. 8 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute, eta pertsona heldu horrek hartuko du haien ardura. Ezin izango dira bakarrik utzi haurren eremuan, ezta beste ezein jardueratan ere, berariaz kontrakorik adierazi ezean. Liburutegiak ez du bere gain hartuko adingabeak zaintzeko eta kontrolatzeko ardura.

Liburutegiak eta bertan egiten diren jarduerak edukiera mugatua dute. Langileek sarrera mugatzeko ahalmena dute, edukiera hori gaindituz gero.

Erabiltzaile-txartela izanez gero, liburutegiek eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzeko aukera izaten da, hala nola mailegua, Internetarako sarbidea eta jarduera eta tailerretan izena ematea, besteak beste. Txartel hori doan lortzen da, eta Euskadiko Irakurketa Sare Publikoko liburutegi guztietarako balio du. Txartela egiteko ematen diren datu pertsonalak liburutegiak kudeatzeko sistemaren fitxategian sartuko dira; Euskadiko Liburu eta Liburutegien Zerbitzua da sistema horren arduraduna.

Liburutegiak ez du bere gain hartuko erabiltzaileen objektu pertsonalen gaineko erantzukizunik.

Liburutegiko langileek sarrera mugatu edo aretoetatik kanporatu ahal izango dituzte araudi/erregelamendu hau edo elkarbizitzarako oinarrizko beste arau batzuk betetzen ez dituzten pertsonak.

56. artikulua. Liburutegi-zerbitzuak erabiltzeko baldintzak.-.

Erabiltzaileek liburutegiko langileen jarraibideak bete beharko dituzte liburutegiaren erabilerari eta zerbitzuei dagokienez. Zuzen jokatu beharko dute une oro, funtzionamendu egokian traba eragin dezaketen edo gainerako erabiltzaileentzat eragozpenak sorraraz ditzaketen zaratak eta jarduerak saihestuz. Telefono mugikorrek eta bestelako soinu-gailuak isilarazita izan behar dira.

Ordenagailu eramangarri pertsonalak erabili daitezke. Konexio elektrikoko puntuak mugatuta daude.

Ezin da jan edo edan, ura izan ezik.

Altzariak eta gainerako ekipamenduak ezin izango dira lekuz aldatu, ez leihoak ireki edo itxi, ezta girotzeko aparatuak aldatu ere.

Irakurketa-postuak banaka erabili behar dira, eta ezin izango dira erreserbatu.

Hogeita hamar minutuz egon ahal izango da postu horietan, eta ezin izango dira, inolaz ere, beste pertsona batzuentzat gorde. Postua denbora gehiagoz hutsik egonez gero, beste pertsona batek erabili ahal izango du. Liburutegiko langileek postu bat okupatzen egon daitekeen edozein material kentzeko ahalmena izango dute, jabea bertan egon gabe, zehaztutako denbora gainditzen denean.

Liburutegiko edozein gune itxi ahal izango da irakurketa sustatzeko nahiz erabiltzaileen prestakuntzako jarduerak egiteko, tailerrak egiteko, ipuin kontalarien saioetarako edo liburutegiko beste edozein jarduera egiteko. Gutxienez hiru egun lehenago jakinaraziko da gunea itxi egingo dela.

Ezin izango dira instalazioak irabazi-asmoekin erabili; adibidez, ordainpeko eskolak emateko. Ez da irabazi-asmoko helburutzat hartuko idazle batek liburuak saltzea aurkezpen-ekitaldi batean, baldin eta aurkeztu den liburu berdina saltzen bada.

57. artikulua.- Mailegu-zerbitzua

Liburutegiko bilduma osatzen duten material guztiak har daitezke maileguan, funts bereziak eta aldizkarien azken aleak izan ezik.



Maileguaren eta liburutegiaren arteko maileguaren araudi orokorra Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarerako ezarritakoa izango da.

Txartela beharrezkoa da zerbitzu hori erabiltzeko. Txartela pertsonala eta besterenezina da, erreserbak jasotzeko eta itzultzeko izan ezik. Azken kasu horretan, txartela aurkeztu egin behar bada ere, ez da nahitaezkoa titularra bertaratzea.

Erabiltzailea da maileguan hartzen duen materialaren erantzule, eta ezarritako datan itzuli beharko du. Gainera, materiala itzultzen ez badu edo hondatuta itzultzen badu, berria ekartzera behartuta dago. Liburutegiak berak adieraziko du zein izango den horretarako prozedura material hori salgai ez badago. Maileguan hartutako dokumentuak lapurtzeagatik salaketa jartzeak ez du esan nahi erabiltzaileak material berria eraman behar ez duenik.

58. artikulua.- Liburutegiak antolatutako jarduerak

Aldez aurretik izena eman beharreko jarduerak egiteko, erabiltzaile-txartela izan behar da. Eskaeren kopuruak eskainitako plazen kopurua gainditzen duenean, zozketa publikoa egingo da.

Plaza kopurua eta zozketaren data liburutegiaren webgunean argitaratuko dira. Liburutegiko langileak jarriko dira plaza lortu dutenekin harremanetan.

59. artikulua – Internet-zerbitzua

Interneteko zerbitzu publikoa honako hauen bitartez eskaintzen da:

- a. Internet: Interneterako sarbidea eta tresna ofimatikoak liburutegiko terminalen bitartez. Horretarako, liburutegiko txartela izan behar da.
- b. WI-FIa: gailu mugikorretatik Internetera konektatzeko aukera ematen du. Ez da txartelik behar.

14 urtetik beherakoek Internet erabili ahal izateko tutoreen baimena beharko da.

Terminalak pertsona bakar batek erabiliko ditu, liburutegiko langileek berariaz baimendutako kasuetan izan ezik.

Saioek 60 minutuko iraupena izango dute.

Ekipo guztiak okupatuta badaude, interesdunak saio baten erreserba egin ahal izango du libre geratzen den lehen posturako.

Terminaletatik, liburutegian horretarako dauden inprimagailuetan inprimatu ahal izango da. Gehenez bost orrialde inprimatu ahal izango dira doan, eta interesdunak ekarri beharko du papera.

Interneteko zerbitzu publikoa indarreko legeriaren, baldintzen eta legezko betekizunen arabera erabiltzeko konpromisoa hartzen du erabiltzaileak. Liburutegiko langileek saioa itxi ahal izango dute behar ez bezalako erabilera eginez gero.

60. artikulua.- Ikasteko gelak

Basauriko kultur etxeetan, gizarte-etxeetan eta kultur instalazioetan dauden ikasteko gelak banakako ikasketarako lekuak dira, eta kasu bakoitzerako ezarritako ordutegia dute. Erakunde Autonomoak horretarako ezarritako espazio eta ordutegietan bakarrik

egin ahal izango dira talde-lanak, eta, bestela, instalazioetan erabateko isiltasuna gorde beharko da.

Ikasteko gelen edukiera mugatua da, eta, beraz, langileek sarrera mugatu ahal izango dute edukiera hori gaindituz gero; era berean, langileen jarraibideak bete beharko dira gelen erabilerari eta zerbitzuei dagokienez.

Telefono mugikorrek eta bestelako soinu-gailuak isilarazita izan behar dira. Ordenagailu eramangarri pertsonalak erabil daitezke, eta konexio elektrikoko puntuak mugatuta daude.

Ezin da jan edo edan, ura izan ezik, eta altzariak eta gainerako ekipamenduak ezin izango dira lekuz aldatu.

Ikasteko postuak ordubetez gordeko dira, baina inoiz ez beste pertsona batentzat. Postua denbora gehiagoz hutsik egonez gero, beste pertsona batek erabili ahal izango du. Zentroko langileek postu bat okupatzen egon daitekeen edozein material kentzeko ahalmena izango dute, jabea bertan egon gabe, zehaztutako denbora gainditzen denean.

X. TITULUA ESPAZIOAK LAGATZEKO ZERBITZUA. ERRESERBA ETA ALOKAIRUA

61. artikulua. — Espazioak lagatzea

Kultur Etxea Erakunde Autonomoa jabari publikoko ondasuna izaki, bertako espazioen erabilera pribatiboa egiteko aukera aurreikusten da. Erabilera horretan erregelamendu honetan ezarritako baldintzak eta mugak bete beharko dira.

Kultur etxearen menpeko instalazioetako espazioak lagatzeko zerbitzua espazio bat eta material teknikoa lagatzean edo alokatzean datza, erakundeei, hirugarren partikularrei, enpresei eta elkarte profesionaleri, beren jarduerak egin ditzaten, presidenteak alde zurretik baimena emanda.

Espazioen erabilerak udalaren esku-hartzearen menpe egongo dira. Esku-hartze horrek, ezinbesteko kasuetan, baimendutako erabilera-ordutegia aldatzea edo etetea ekar dezake, erreklamatzeko aukerarik gabe. Hala ere, ahal den neurrian, horrelako erabakiak 48 ordu lehenago jakinaraziko dira. Era berean, udal-arduradunek instalazioak erabiltzaileentzat eta publikoarentzat ixtea erabaki ahal izango dute, betiere haien segurtasunerako arriskuren bat aurreikusten bada.

Jarduera guztiek bat etorri beharko dute Erregelamendu honetako xedapenekin, 10/2015 Legearekin (10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena), hura garatzen duen Erregelamenduari eta aplikatzekoa den beste edozein araudiarekin. Beraz, ezin izango da arraza, generoa, kultura edo erlijioa dela eta diskriminatzen duten edo intolerantziaren nahiz indarkeriaren apologia sustatzen duen ekitaldirik egin.

Jarraian zehaztutako guneen erabilera doan lagako zaie elkarte soziokulturalei, baldin eta Elkarteen Udal Erregistroan erregistratuta badaude eta udalaren edozein sailetatik dirulaguntzaren bat jasotzen badute edo, bestela, beren jarduera udalerrian modu egonkor eta jarraituan egiten badute.



Kultura-elkarte izateko, Kultur Etxearen instalazioetan garatu nahi den jarduera zehatza hartuko da kontuan, eta horrek izaera kultural nabarmena izan beharko du; bestela, bere estatutuetan xedatutakoa kontuan hartuko da.

Aitzitik, Ordenantza Fiskaletan ezarritako **tarifak ordaindu** beharko dituzte espazioak beste udalerrri batzuetako elkarteei, partikularrei, enpresei eta elkarte profesionalei lagatzen zaizkienean, beren jarduerak egin ditzaten.

Kultur Etxea Erakunde Autonomoak erakunde bat «partikularizat edo enpresatizat» hartzeko eskubidea izango du, kultur arlokatzat soilik hartzen ez diren bestelako jarduerak egiten baditu. Horrez gain, halakotzat joz gero, tarifak ordaindu beharko dituzte.

62. artikulua. — Erreserbatu daitezkeen espazioak.-

Erreserbatu eta alokatu daitezkeen espazioak Erregelamendu honetan eta Ordenantza Fiskaletan zehaztuta daude, eta libre badaude eta eskatzen den jarduera zehatza egiteko baldintzak betetzen badituzte erabili ahal izango dira.

Espazioen erabileran lehentasun osoa izango dute, hurrenkera honekin, Erakunde Autonomoak berak, Udalak eta bestelako instituzioek egindako eskaerek.

Lehentasuna emango zaie irabazi-asmorik gabeko elkarteek edo erakundeek antolatutako kultura-jarduerari.

Espazioak

SOCIAL ANTZOKIA

BASOZELAI GIZARTE ETXEA

- Ekitaldi-aretoa
- Erabilera anitzeko aretoak (Urbi, Azbarren, Ariz, Kalero)
- Artunduaga aretoa
- Erabilera anitzeko gela bikoitza (Urbi+ Azbarren)

KAREAGA GIZARTE ETXEA

- Ekitaldi-aretoa
- Gela bikoitza (Malmasin, Pagasarri)
- Malmasin aretoa
- Pagasarri aretoa

POZOKOETXE KULTUR ETXEA

- Baskonia aretoa
- Urdaibai aretoa
- Nerbioi aretoa

SAN MIGUEL KULTUR ETXEA

- Lapatza
- Villaverde aretoa
- Ekitaldi-aretoa (Lapatza, Villaverde)
- Kakalu

IBAIGANE KULTUR ETXEA

- Ekitaldi-aretoa

ARIZKO DORRETXEA

- 3. aretoa
- 2. aretoa

TABERNA NAGUSIA

- Ekitaldi-aretoa

63. artikulua.- Espazioak erreserbatzeko eta alokatzeko eskaera egiteko baldintzak.-

Espazioen erreserba egiten denean eta erreserbak irauten duen denboran talde, elkarte, klub edo erakunde eskatzaileko arduradun bat egon beharko da bertan.

Burutuko den jarduerarekin edo erreserbatzen den espazio motarekin bat etorriz, espazioak erreserbatzeko eskaerak adingabeek egiten dituztenean, kultur etxeak haien legezko tutoreen baimena eskatu ahal izango du. Halaber, taldeko arduradun heldu bat bertan egotea erabaki ahal izango da.

Erakunde eskatzaileak *espazioaren* baimendutako edukiera errespetatzeko konpromisoa hartuko du.

Hala ere, Social Antzokian antolatzen diren eta kultur etxeak edo Udalak zuzenean antolatzen ez dituen ikuskizun eta jolas-jardueretan, antolatzaileek erantzukizun zibileko poliza independente bat kontratatu beharko dute, Erakunde Autonomoak kontratatuta duenez gain, ospakizunaren ondoriozko erantzukizun zibila estaltzeko. Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak onartutako eredu normalizatua aurkeztu beharko da.

Kultur etxeak baldintza partikularrak ezarri ahal izango dizkie espazioen erreserba jakinei erregelamendu honetan ezarritakoa bete dezaten.



64. artikulua.- Erreserba egiteko prozedura, eskaeren tratamendua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Erakunde Autonomoaren menpeko instalazioren baten erreserba-eskaera posta elektronikoz egin beharko da edo, hala badagokio, zehazten den beste edozein online modutan.

Eskaera horri idatziz erantzungo zaio Erakunde Autonomoaren presidentearen Ebazpen baten bitartez, entsegu-aretoei dagozkienak izan ezik, eta eskatzaileari jakinarazi egingo zaio.

Debekatuta dago eskaera-orrian agertzen den erakundea ez den beste batek erabiltzea espazioa; debekatuta dago baita ere erreserba-protokoloan (eskaera-orria) deskribatzen dena ez bezalako jarduera burutzea.

Basauriko Kultur Etxeak erakundeari, taldeari edo enpresari, edo espazioa eskatzeko xede den jarduerari buruz informazio zehaztua eskatzeko eskubidea izango du. Horiek ez betetzeak zentroak jarduera bertan behera uztea eragin dezake.

Burutuko diren jarduerak kulturaren, gizartearen eta ongintzaren arlokoak izan beharko dira batez ere; baldintza hori bete ezean, elkarten eskaerak partikular edo komertzialtzat joko dira eta, beraz, Ordenantza Fiskaletan zehaztutako tarifak ordaindu beharko dituzte.

Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Erakunde eskatzailearen edo pertsona fisiko eskatzailearen IFK/NANaren fotokopia.
- Elkarten kasuan, izena, helbidea eta Basauriko Elkarten Udal Erregistroko zenbakia.
- Eskatzen den espazioa, datak, jarduera hasteko eta amaitzeko aurreikusitako ordutegia eta behar teknikoak.
- Espazioa lagatzeko eskaeraren xede den jarduera-programa espezifiko.
- Erakunde Autonomoaren solaskide izango den arduradun bat izendatzea.
- Aseguruaren kontratazioa egiaztatzen duen ziurtagiria, eranskinetako eredu normalizatuaren arabera, Social Antzokia erreserbatzen bada.

Erakunde berari espazio bat lagatzeak, aldizka izan arren, ez du ekarriko, inola ere, erakundearen edo taldearen egoitza soziala zentro horretan ezartzeko aukera.

a) Kultur etxeak, gizarte-etxeak, Taberna Nagusia eta Arizko Dorrea

Eskaera-orria (I. eranskina) jarduera egin baino 15 egun lehenago, gutxienez, bideratu beharko da. Ez dira onartuko jarduera burutuko den eguna baino hiru hilabete lehenagoko eskaerak.

Gizarte-etxeak edo kultur etxeak idatziz jakinaraziko die eskatzaileei erreserbak onartu edo ukatu diren, eskaera jasotzen denetik gehienez ere 5 egunen buruan. Erantzunean, eskatutako zerbitzu guztiengatik ordaindu beharreko zenbatekoa agertuko da. Behin

betiko erreserba ez da egingo eskatzaileak ezarritako tarifak ordaindu arte; erreserbaren onarpena egiaztatzen denetik 10 eguneko epean egin beharko da ordainketa, bankuan diru-sarrera eginda eta/edo bizum bitartez, eta hurrengo atalean eta Social Antzokiari buruz zehaztu diren lehentasun-irizpide berdinei jarraituko zaie.

b) Social Antzokia

Urtero, urtarrilaren 1etik 31ra, elkarte, erakunde edo partikularrek Social Antzokiaren erreserba-eskaera egiteko epea irekiko da, otsailaren 1etik hurrengo urteko urtarrilaren 31ra bitartean egin nahi dituzten jardueretarako.

Lehentasun-irizpideak honako hauek izango dira:

1.- Elkartearen Udal Erregistroan erregistratutako elkarte soziokulturalak, udalaren edozein sailetatik dirulaguntzaren bat jasotzen badute edo, bestela, beren jarduera udalerrian modu egonkor eta jarraituan egiten badute.

2.- Helbide soziala Basaurin duten partikularrak, enpresak edo elkarte profesionalak.

3.- Eskaera aurkeztu den eguna.

Hala ere, adierazitako epetik kanpo egiten den edozein eskaera onartuko da, baina, edozelan ere, jarduera egin baino 45 egun lehenago aurkeztu beharko da, eta aurreko paragrafoan ezarritako lehentasun-irizpideei eutsiko zaie.

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, herriko elkarteek egindako eskaerak baieztatuko ditu mezu elektronikoko bidez Social Antzokiak, eskaera jaso eta 5 eguneko epean. Gainerako eskaerak aurkezpen-epea amaitu eta segidako 5 egunetan baieztatuko dira, betiere goian aipatutako lehentasun-irizpideak kontuan hartuta.

Hala ere, eskaerak ez dira behin betiko onartutzat joko dagokion tarifa ordaindu arte, harik eta, Ordenantza Fiskaletan adierazitakoaren arabera, ordaintzetik salbuetsita ez badago. Erreserbaren behin-behineko baieztapena jaso eta segidako 10 egunetan egin beharko da ordainketa, eta, nolana ere, jarduera egin baino 5 egun lehenago, gutxienez, bankuan diru-sarrera eginda eta/edo bizum bitartez.

Epe hori igaro eta dagokion zenbatekoa ordaindu ez bada, eskaera bertan behera geratu dela ulertuko da, eta, beraz, beste antolatzaile batek beste erreserba bat egin ahal izango du, hala badagokio.

65. artikulua.- Tarifak.

Gizarte-etxeetako, kultur etxeetako, Social Antzokiko eta Erakunde Autonomoaren menpeko gainerako kultur instalazioetako espazioak erabiltzeak udal-tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalean onetsitako eta zehaztutako tarifak ordaindu behar izatea ekar dezake; tarifa horiek bankuan diru-sarrera eginda edo bizum bitartez ordaindu behar dira.

Jarduera ohiko ordutegitik kanpo garatzen bada edo ordutegia luzatu behar izanez gero, eskatzaileek langileen eta ordutegia luzatzearen gastuak ordaindu beharko dituzte jardueraren ondorengo egunetan. Halaber, ekitaldietako soinu- eta argi-teknikarien edo azpiegituren alokairuaren gastuak ere ordaindu beharko dituzte. Zerbitzua emateagatik



eragiten diren aparteko zerbitzuak ere eskatzaileek hartuko dituzte bere gain, berme bezala jarritako fidantzatik kenduz.

Honako hauek salbuetsita daude espazioak lagatzeko zerbitzuaren tarifak ordaintzeaz:

- Estatua, Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko Foru Aldundia, Basauriko Udala eta udal-titulartasuneko zerbitzuak.
- Alderdi politikoak hauteskunde-garaian, eta udal-langileen sindikatuek beren batzarrak egiteko antolatzen dituztenak.
- Irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteak, izaera sozial eta kultural nabarmenekoak, baldin eta Elkarten Udal Erregistroan erregistratuta badaude eta dirulaguntzaren bat jasotzen badute edo, bestela, beren jarduera udalerrian modu egonkor eta jarraituan egiten badute.
- Antzerki, dantza, musika edo antzeko konpainiak edo Basauriko Udal Kultur Etxearekin egonaldiak eta/edo entseguak egiteko lankidetzak-hitzarmena sinatzen duten banakako artistak. Hitzarmen horietan, antzerki-konpainiek Basauriko Udal Kultur Etxeari Social Antzokiaren lagapenaren trukean emango dizkioten kontraprestazio artistiko edo ekonomikoak finkatu ahal izango dira.

Espazioaren lagapena dagozkion tasak ordaintzetik salbuetsita dagoen antolatzaile batek eskatzen badu, Social Antzokiak bere baliabide pertsonal eta teknikoak jarriko ditu antolatzailearen esku, hots, soinua, argiak, garbiketa, kokapena eta leihatila. Nolanahi ere, Social Antzokiko langileen irizpide teknikoaren arabera, egin nahi den jardueraren ezaugarriak eta berezitasunak direla eta, Social Antzokiak eman ezin duen beste edozer eskatzen badute, antolatzaileak ordaindu egin beharko ditu.

Espazioaren lagapena alokairu-ordainketatik salbuetsita ez dagoen antolatzaile batek eskatzen badu, antolatzaile horrek bere gain hartuko ditu, halaber, teknikarien gastuak, ekitaldietako soinu eta argiztapenekoak, garbiketakoak, kokapenekoak eta leihatilakoak, edo azpiegituren alokairuko gastuak, eta muntaketa-lanen edo aparteko prestaketa-lanen gastuak. Kasu horietan, Erakunde Autonomoak zerbitzu horiek ematen dituzten enpresekiko harremanak erraztuko ditu, eskatzaileek ezin izango baitituzte zerbitzu teknikoak edo giza zerbitzuak beren langileekin edo haiek ekarritako langileekin egin.

Social Antzokia 2 emanaldi egiteko erreserbatu nahi bada, dela lanaldi erdian, dela lanaldi osoan, alokairuaren prezioa % 30 igoko da. Alokairuaren xede den ekitaldiarengatik Social Antzokiak ezin badu aurreikusita duen ohiko zinema-saioa egin, erreserba hori alokairu osotzat hartuko da nolanahi ere.

Lagapenaren esparruan antolatutako jardueretara sartzeko sarrera kobratzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei ez zaie zerbitzuaren kuota murriztua aplikatuko, partikularrei, enpresei edo elkarte profesionaleri aplikatzen zaiena baizik, salbu eta ongintzako helburuak badituzte.

66. artikulua.- Fidantzak

Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren menpeko edozein espazio –Social Antzokia izan ezik– erabiltzeak fidantza bat ordaintzea dakar, espazioa egoki eta ondo erabiltzearen berme gisa, eskatzailea tasak ordaintzetik salbuetsita egon ala ez egon, Erregelamendu honen eta onartutako Ordenantza fiskalen arabera.

Gordailu hori jarduera amaitzen denean itzuliko da, jarduera bukatu eta gutxienez hurrengo 10 egunak igarotakoan. Fidantza gisa ordaindu beharreko zenbatekoak dagozkion Ordenantza Fiskaletan ezarriko dira. Aretoan, altzarietan edo materialean kalte edo akatsen bat eraginez gero, horiek konpontzeko gastuak berme moduan utzitako fidantzatik kenduko dira.

Eskatutako denbora gaudituz gero, orduen zatikiak ordu osotzat joko dira eta fidantzatik kenduko dira. Era berean, aretoan, altzarietan edo materialean kalte edo akatsen bat eraginez gero, horiek konpontzeko gastuak berme moduan utzitako fidantzatik kenduko dira.

67. artikulua.- Erreserba bertan behera uztea eta itzulketak.-

Kultur Etxea Erakunde Autonomoak bere instalazioetako edozeinetan –baita Social Antzokian ere– egindako erreserba bat atzeratu edo bertan behera utz dezake, betiere arrazoituta eta jendearen interesekoa den zioz eta, posible izanez gero, jarduera burutzeko beste espazio bat emango da. Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago jakinaraziko da.

Era berean, ahalmen hori izango du instalazioaren erabilera okerra dela eta, edo burutzen diren jarduerak erreserba egiteko arrazoiak izan zirenen kalterako direnean.

Era berean, erabiltzaileei eta, oro har, jendeari instalazioak guztiz edo partzialki ixteko aukera izan dezake ustekabeko arrazoiren bat dela eta instalazioen erabileran edozein modutako arriskuak egon daitezkeela erabakiz gero.

Kultur etxeak alokairuaren zenbatekoa itzuliko du zentroak berak utzi badu bertan behera edo instalazioen egoerak ez badu erabilera egokia ahalbidetzen. Hala gertatzen denean, erreserba beste egun batera ere aldatu ahal izango da eta ezaugarri berberak dituen espazio baterako. Itzulketa eraginpeko espazioa dagoen zentroan izapidetu beharko da, zazpi eguneko epean. Itzulketa izapidetzeko erreserba ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Eskatzaileak jarduera burutu baino hamabost egun lehenago bertan behera utziz gero erreserba, ordaindu beharreko zenbateko osoa itzultzeko edo erreserba beste egun baterako egiteko eskubidea izango du. Jarduera hasi aurreko hiru egunetan uzten bada erreserba bertan behera, ordaindutako zenbatekoaren % 50 itzuliko da.

68. artikulua.- Hedapena eta irudi-eskubideak

Zentroak bertako hedapenerako bideak eta informazio-puntua erabiltzeko aukera emango die aretoak edo espazioak lagatzeko zerbitzuaren erabiltzaileei. Erakunde eskatzaileak, ekitaldia hedatzeko materiala argitaratuz gero, erreserbaren eskaeran jarduera hedatzeko formatua eta testuak gehituko ditu, eta horien hedapenez eta publizitatea banatzeari buruzko udalaren araudia betetzeaz arduratuko da. Eskatzaileak jarduera hedatzeko argitaratzen duen materialean ezin izango da agertu zentroaren logotipoa edo marka, ezta erakundearen irudia ere, zuzendaritzak aurrez baimenik eman



gabe. Aurrez hala erabakiz gero, kultur etxearen logotipoa azaldu ahal izango da jardueraren erakunde laguntzaile bezala. Jarduera hedatzean ez da azalduko zentroko telefono-zenbakia. Ekitaldiari buruzko alde aurreko informazioa lortzeko, jarduera antolatzen duen erakundeak hartu beharko du bere gain lan hori, bere egoitza sozialean eta bere baliabideekin.

XI. TITULUA ZEHAPEN-ARAUBIDEA

69. artikulua.- Arau-haustek

Arau-hauste administratibotzat hartuko dira araudi honetan jasotako arauak urratzen dituzten egite edo ez-egite guztiak.

1.- Arau-hauste arinak

Falta arintzat hartuko dira honako hauek:

- a) Kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultur instalazioetako jarduera edo zerbitzuen arduradunen jarraibideei jaramonik ez egitea.
- b) Ebakuazio-ateak zentrorra sartzeko edo bertatik irteteko bide gisa erabiltzea larrialdi-egoera ez dagoenean, eta instalazioak behar ez bezala erabiltzea edo jarduerak normaltasunez egiten ez uztea.
- c) Zalapartak sortzea edo jarduerak etetea eragiten duen beste edozein ekintza arin eragitea.
- d) Jarduerarako baimendutako ordu-muga gainditzea, betiere hirugarrenei kalterik eragiten ez bazaie, bai instalazioen beste erabiltzaileei, bai herritarrei, oro har.
- e) Erabilera-baimenean ezarritako erabiltzaile-kopurua gainditzea, betiere hirugarrenei kalterik eragiten ez bazaie, bai instalazioen beste erabiltzaileei, bai herritarrei, oro har.
- f) Araudi honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, betiere ez-betetzearen izaeragatik eta larritasunagatik astuntzat edo oso astuntzat tipifikatuta ez dagoenean.

2.- Arau-hauste astunak

Falta astuntzat hartuko dira honako hauek:

- a) Kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultur instalazioetako zerbitzuen bizikidetzeta eta funtzionamendua aztoratzea, eta zerbitzu horien berariazko arauak eta araudi honetan jasotakoak ez betetzea.
- b) Kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultur instalazioetako espazioak eta zerbitzuak behar ez bezala erabiltzea eta baimendutakoez bestelako jarduerak egitea.
- c) Ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu gabe baliatzea zerbitzuak.
- d) Ezarritako erabilera pribatiboa beste erabilera baterako erabiltzea edo jarduerarako baimendutako ordu-muga gainditzea.
- e) Erabilera-baimenean ezarritako erabiltzaile-kopurua gainditzea, betiere hirugarrenei kalteak eragiten bazaizkie, bai instalazioen beste erabiltzaileei, bai herritarrei, oro har.

- f) Jarduerarako baimendutako ordu-muga gainditzea, betiere hirugarrenei kalteak eragiten bazaizkie, bai instalazioen beste erabiltzaileei, bai herritarrei, oro har.
- g) Kultur etxeetako, gizarte-etxeetako eta kultur instalazioetako ekipamenduetan, azpiegituretan, instalazioetan edo elementuetan kalteak eragitea.
- h) Kultur etxeak, gizarte-etxeak eta kultur instalazioak erabiltzen ari diren pertsonen begirunea galtzea, baita horietan lan egiten duten langileei ere.
- i) Bi urteko epean bi falta arin edo gehiago egitea.
- j) Zerbitzu etako berariazko txartelak manipulatzeko eta faltsutzea.
- k) Norberak eragindako kalteak ez jakinaraztea.

3.- Arau-hauste oso astunak

Arau-hauste oso astuntzat hartuko dira honako hauek:

- a) Hartarako eskubidea duen edonori kultur etxeak, gizarte-etxeak eta kultur instalazioak edo horietan eskaintzen den zerbitzuaren erabilera eragoztekoa.
- b) Kultur etxeen, gizarte-etxeen eta kultur instalazioen ohiko funtzionamendua eragoztekoa edo oztopatzea.
- c) Erabiltzaileek edo jardueren antolatzaileek instalazioetan edo bertako materialetan kalte edo narriadura larriak eragitea.
- d) d).- Kultur etxeak, gizarte-etxeak eta kultur instalazioak erabiltzen ari diren pertsonen eraso fisikoa egitea, baita bertan lan egiten duten langileei ere, eta beste erabiltzaile batzuekiko edo instalazioetako langileekiko jarrera matxista edo diskriminatzailea izatea.
- e) 2 urteko epean bi falta astun edo gehiago egitea.

70. artikulua.- Kautelazko neurriak.-

Falta astuntzat edo oso astuntzat jo daitezkeen jokabideak dituzten erabiltzaileak kautelaz kanporatu ahal izango dira, gehienez ere segidako hamar egunetarako, eta horren berri emango zaio zentroko arduradunari. Arduradunak, eraginpeko pertsonen entzun ondoren, hasieran ezarritako kautelazko neurria aldatzea proposatu ahal izango du, bai zentzu batean, bai bestean, egoeraren larritasunaren arabera, eta kultur etxeak eta udalak beharrezko legezko ekintzak bideratzeko eskubidea izango dute. Falta oso astunak edo astunak egiten dituzten pertsonen abonak edo txartelak aldi baterako kendu ahal izango zaizkie.

71. artikulua.- Zehapenak

Arau-hauste arinen kasuan, zigorrak hauek ezarriko dira: oharrazpena, eta/edo instalazioak hilabetetik hiru hilabetera bitarte erabiltzeko debekua, eta/edo gehienez 750,00 euroko isuna.

Arau-hauste astunen kasuan, zigorrak hauek ezarriko dira: instalazioak hilabetetik edo hiru hilabete eta egun batetik sei hilabetera bitarte erabiltzeko debekua, eta/edo 751 eurotik 1.500,00 eurora bitarteko isuna.

Arau-hauste oso astunen kasuan, zigorrak hauek ezarriko dira: instalazioak sei hilabete eta egun batetik hiru urtera bitarte erabiltzeko debekua, eta/edo gutxienez 3.000 euroko isuna.



72. artikulua.- Zehapenak mailakatzea

Ezarri beharreko zehapenen mailaketak bat etorri beharko du arau-haustea eragin duen egitatearen larritasunarekin, eta proportzionala izan beharko du. Era berean, honako lege hauetan aurreikusitako eta araututako inguruabar astungarri eta aringarriak kontuan hartu beharko dira: 38/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.

73. artikulua.- Zehapen-prozedura

1. Kasuan kasuko zentroaren erantzukizuna duen langileak espedientea hasiko du, eta txosten batean jasoko ditu ustez zigortzekoa den jokabidea, horren inguruabarrak eta, hala badagokio, hartutako kautelazko neurriak; txostena kultur etxearen zuzendariari helaraziko dio.

2. Zuzendariak dagokion espedientea formalizatuko du; espedientea honako 39/2015 Legean (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) araututako prozeduraren arabera izapidetu beharko da, eta 2/1998 Legearen (2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa) printzipioei jarraikiz.

74. artikulua.- Behin-behineko neurriak

Prozedura hasitakoan, ebazpena ofizioz edo alde batek eskatuta eta arrazoituta emateko eskumena duen administrazio-organoak egoki iritzitako behin-behineko neurriak ezarri ahal izango ditu ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

75. artikulua.- Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

Arau-hauste oso astunak hiru urtera preskribatuko dira, astunak bi urtera, eta arinak sei hilabetera.

Arau-hauste oso astunen kasuan ezarritako zehapenak hiru urtera preskribatuko dira, arau-hauste astunen kasuan ezarritakoak bi urtera eta arau-hauste arinen kasuan ezarritakoak urtebetera.

76. artikulua.- Kalteak konpontzea

Zehapenak ezartzea bateragarria izango da arau-hausleari berak eragindako egoera lehengora ekartzeko eskaerarekin, baita eragindako kalte-galerak ordainaraztearekin ere. Udalarenak diren ondasunetan kalteak eragiten direnean, udaleko zerbitzu teknikoek zehaztuko dute konponketaren zenbatekoa, eta arau-hausleari edo haren ordezkariari behar duenari emango zaio zenbateko horren berri, ezartzen den epean ordain dezan.

77. artikulua.- Erantzuleak

Egile materialak izango dira arau-hausteen erantzule zuzen, salbu eta adingabeak badira edo legez egotzi ezinezko kausaren bat betetzen badute; horrelakoetan legezko zaintza dutenek erantzungo dute haien ordez.

Arau-haustea zenbait pertsonak batera egin badute, guztiek solidarioki erantzungo dute. Kalteen erantzule solidario izango dira, halaber, beste batzuek egin ditzaketan arau-hauste administratiboetara aurrea hartzeko legezko betebeharrak dagokien pertsona fisiko edo juridikoak.

78. artikulua.- Adingabeek egindako arau-haustek

Adingabeek egindako arau-hausteen kasuan, zentroko arduraduna gurasoekin edo, hala badagokio, tutoreekin harremanetan jartzen saiatuko da, prebentzioko erantzunak eta familia-baliabide propioak sustatzearen. Halaber, egitateak adingabeen fiskaltzari jakinarazi ahal izango zaizkio.

79. artikulua.-Itundutako amaiera

Gizalegearen aurkako jokabide baten ondorioz eragindako kalteak ahal den neurrian konpontzearen, dagokion zigorra ezartzeko ebazpena eman aurretik, zigorraren ordez, edo Udalari zor zaion ordainaren zenbatekoaren ordez, komunitatearentzako lanak edo egitekoak ezartzeko eska dezake arau-haustea, arau-haustearen larritasunarekin bat datozen eta haren heinekoak diren egitekoak, hain zuzen. Horrelako eskaerarik eginez gero eten egingo da espedientea ebazteko epea. Udal-administrazioak espedientepekoaren eskaera onesten badu, zehapen-espedienteari itundutako amaiera emango zaio, eta ezartzen diren lanak ez dira zehapentzat joko eta ez du inolako lan-loturarik izango Udalarekin.

80. artikulua.- Txartelak behin-behinean konfiskatzea

Pertsona batek zerbitzu baten berariazko txartela aurkezten duenean zentroko langileek uste badute arrazoiren bat dela medio pertsona horrek abonatu, bazkide edo inskribatu izatera galdu duela, edo aurkeztutako txartela behar den bezalako ez bada, une horretan sartzen utziko zaio, baina txartela entregatu beharko du eta txartel hori zentroan geratuko da, sarbidea eragozten duen arrazoiak ebazte arte.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.- Gazteria-zerbitzuak Basozelaiko gizarte-etxean ematen diren bitartean, udal-zerbitzu hori arduratuko da entsegu-aretoak kudeatzeaz, kultur etxeko zentroko arduradunak gainbegiratuta.

Bigarrena.- Gazteria-zerbitzuak kokaleku berrira lekualdatzen direnean, entsegu-aretoak kudeatzeko ardura Erakunde Autonomoko zentroko arduradunak izango du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Erregelamendu honetan berariaz jaso ez den guztirako, 10/2015 Legean (10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena) eta



17/2019 Dekretuan (17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena) xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.- Erregelamendu honek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera izango ditu ondorioak, 7/1985 Legearen (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena) 49. eta 70. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- Erregelamendu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratzen da Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren titulartasuneko ekipamenduen funtzionamendua aplikatzea eta arautzea erabakitzen duen beste edozein, eta, zehazkiago, erakunde autonomoaren kultur etxe, gizarte-etxe eta kultur instalazioen funtzionamendua arautzen duen erregelamendua, 2010eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran onetsi zena.